

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, hainbat elementu funtsezkoak dira.

Gure kasuan, nahiz eta guk ez sortu makina, hau da, Azkoyenek sortua izan arren, ondo legoke guk hizkuntza maila anitza izatea, egunen batean bezeroren batekin harremanetan jarri behar izanez gero ere, arazorik ez izateko.

Bestalde, makinak matxuraren bat izanez gero edo makinaren inguruan zerbait aldatu beharra baldin badago, Azkoyen enpresak konponbidea emango digula esan digu. Beraz, guretzar oso garrantzitsua izango da enpresa hau.

Azkenik, gure aurrezkien artean enpresa aurrera eramatea lortuko dugu, bankuari inongo mailegurik eskatu gabe. Honek, bankuarekiko izan ditzakegun zorrak saihestuko ditu, lana modu errazeagoan eta lasaiagoan egitea ahalbidetuz.